

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein negozio ereduren motorra, beraz, gu horretan zentratuko gara. Zerbitzua mundu guztiaren eskura egon arren, zehazki ondoren aipatuko ditugun ezaugarriak dituzten pertsonetan zentratuko gara:



Hasteko, gure negozioa negozio euskaldun bat denez eta hasieran muga errealista bat nahita ez jartzea beharrezkoa denez, jende euskaldunean edo Euskal Herriko biztanleetan zentratuko gara. Hala ere liburua elebiduna izango denez, hau da, bai euskaraz eta bai gazteleraz argitaraturik egongo denez, Espainia mailan zabaltzea izango da hurrengo pausua, eta arrakasta oso handia izaten bada Europa mailan ere zabaltzea planteatu genezake. Hala ere hasieran Euskal Herriko biztanlerian enfokaturia izango da gure lana.

Liburuaren edukia biztanleek txikitatik barneratzea nahi dugunez eta eskoletan zabaltzea erabaki dugunez, 5-7 urte bitarteko umeei bideratuta egongo da, hauek baitira edukia jasoko dutenak, baina gure bezero nagusiak hauen gurasoak eta ikastetxeak izango dira, beraiek baitira umeei ipuin hauek helarazteaz arduratuko direnak.



Hortaz aparte, gure bilduma sexu eta genero ezberdin guztientzako moldatuta dago, hau da, bai mutil bai neska eta baita beste edozein identitate duen ororentzat zuzendutakoa izango da.

Azkenik, eskainiko dugun produktua liburu bat izanda ere ez da derrigorrezkoa umeak berak irakurtzen jakitea, hau gurasoek, irakasleak edo beste hirugarren pertsona batek irakurri ahal izango diolako. Modu honetan hirugarren pertsona hori ere kontzientziatu dezakegu.

